

## IRAKURGAI EDERA ASKORENTZAT

### Erlia ta erlamiñua

—¿Zelako gauza txar egin dot nik zubek ni emendik jauřiteko?—oso minduta erlamiño batek diñotso erlatokiko ate mutufian ageřtzen zan erle bateri. ¿Esango al-daustazu nori egin dioten danik eta okerik txikeřena?

—Inori bez, ori egia da —erantzun eutsan beriala erliak—; baña ęnoiz egin dozu onik? ¿Naikua al-da gaizta-keririk ez egilia, geuk lorekin egiten dogun estiz zeu gura dozun aña asetzeko? ¿Alpeřerijan gustatzen al-yatzu? Jun zakidaz emendik ezer egin-barik etxia ta janarija emoten daben lekura; ba emen bakař-bakarik lanak emoten dauskun egalija gustijok erabagitzen dakigu ordainzat.

Jakifun eta eřazoiko erliak ulertu erayotzan beriala erlamiñuari ez dala naikua gauza txarik ez egilia, batzik bialeřkua dala gauza onurakořak egilia be.

•ALDRATXOKOBAT.

Eibar-Iraľa.

## JAUNA

Euzkeldunen ařtian dagõ oitura bat, neuk ondo ezteritxana. Berau da norbera baño gorago dagonari, jauna esatia.

Iguingafija da ofenbeste bai jauna ta ez jauna aguan erabilitia; nik uste dot, eřderatik ařtu dogula oitura ori. Erdeldunak danari esaten dautse seńor, bai zapateruari bai karabińeruari, ta geu be etofi gara neufi ofetara, ofenbeste jauna'gaz.

Bata goratuten dan beste, bestia beratuten da; askotan jauna esaten yakona, jatofi edozelakuagua da ixen ori emoten dautsona baño, batez-be euzkotarřak atzeřitarřari esaten ba-dautso. Euzkotarřak bata bestiarři eztauko zetan jauna esan (gitxijago atzeřitarřari), euzkotarřak garialako jatofi garbikuak, odol goři edeřekuak; itz ofen ordez, bai gixona esan bial da nire ustez, ta itxi jauna ofek eta sirinkerijok odol urdindunentzak, markes, conde ta eřekondiarentzat.

Eřiko neskatotxo bat etofi yatan bein etxera; asi ninzant beragaz izketan, eta erantzuten ebanian bayetz, edo ezetz esaten eustan: «bai gixona», «ez gixona». Oituta ordurarte beti, «bai jauna» entzuten, gustiz ederto eretxi neutsan erantzun oferi, ta enintzan aspertuten; zenbat eta geyago oldoztu, egokijago ta euzkotarřago neritxon. Ordutik ona, jauna ofek, geruago ta koipe-usain geyago emoten daust.

Jauna, bat bakařik dago: Goikua donokijan, eta bere ordezkua ludijan. Ez nastau, ba, gixonakin itz aundi edef ori. Itxi, ba, sirinkerija bano ezta, eta erabili, «bai gixona».

AZKE.

## YABANA DALA-TA

Belarřimotz batek, gure kaltez idatzi-gurarrik, beńola esan eban eurak, yabana'tarřak edo yabana-endakuak, ona etofi zirala euzkotarřen abenda edo ařaza erijotzaz zema-tuteko.

Inok ezekijan yabana-abendaren barřirik. Uřian belarřimotz arek asmatutako itzen bat zan.

Ordutik ona, polifo baño polifuago, abeřtzaliak yabana esaten dautsegu belarřimotzai eřderaz.

Baња euzkeldunak be asi dira itz ori euzkeraz erabilten. Eta ori ezteritxogu-ondo.

Alakoxiak gara euzkeldunak: euzkel-itz bafiren bat sořtuten ba-da, amaika atxaki asmatzen dogu bera ez erabileko.

Baња eřderatik ba-datoř, barřija ta bakana ixanda-be, řtakl berialaxe ařapatzen dogu.

Ez olakorik egin. Eřderaz esan daikegu yabana, nundik datořan jakin ez-ařen; řguri bost!

Baња eztaigun loitu gure Euzkera edeřa itz ařotzakaz.

## OLANDA TA PAřIA

### (IPUYA)

Pařatxo gaste txil iritzi bat, luma edeřez jantzi beria, losko-ertz baten gangar zebilen erakutsi-nai bere jantzia; eta inguruko olandarekin mintzatu zan beřitxu aundiya esanaz ařo:

—Ene olanda:

neri begira pozik zaudes zu, ba inola ere, apain jantzirik, gaur txil edeřa ařkitzen nazu.

Olandak baita:

—Txoro gangara:

apaña ago, bai, baña ez edeřa; aiz, ipuř-motz ta moko-zabala, anka-nařax ta ibil-baldařa. ¿Eta ofela, ero aundiya, eure buruaz aiz ařotuten? Jantzi edeřak, apaindu-ařen, řitxusiyak ez dizkin edeřtzen!

TENE.

### Zenbakarena

Alaba alpeř bati bere amak dirautso:

—Zenbakarřen galtzerdija don ori, atzotik ona egin donona, ume.

—Bigarřena, ama.

—Beraz, ba-abil ęzta?

—Bai, ba.

—¿Eta nun don, ba, lenengua?

—Egilego ondiño.

—¿Guizurřa esan don, beraz?

—Ez ama; bigarřenetik asi naz-ta.

### Manduaren ostikadea

Mořoyak, ilun baltzan kortatik ugazabari didarř-egiten dautso: «Zatoz, nagusija». —¿Zer dok, ba?— Manduak ostikada ixugari bat emon, eta eztaikil ondo niri ala atari.